

BASOEN ITOALDIA

Eukaliptoen eta pinuen basogintza ereduak herritarren kezka piztu du

INGURUMENA / Nerea Goti

Egungo basogintza eredu nagusiagatik kezkatuta, herritar plataformak antolatu dira hainbat lekutan, eta pinu eta eukaliptoen monolaborantzaren hedapen «neurrigabeari» mugak jartzeko eskatzen dute. Arazoa Bizkaian eta Gipuzkoan dago, bereziki, baina baita Arabako ipar-ekialdean ere, Nerbioi ibaiaren arroan zehar, zehazki, Bizkaia eta Arabaren arteko mugan dagoen Aiaraldea Arabako eskualdean eta inguruan dauden Urduña, Arrankudiaga eta Orozko Bizkaiko udalerrietan.

Ustiapien intentsiboa ardatz duten landaketa horien ingurumen inpaktuak frogatuta daude. Ustiaketa eredu horrek behar duen basoen industrializazioa aipatu dute adibide gisa: pistak egitea, makineriaren erabilera, matarrasak... Basoen kontserbazioa babestea eskatzen duen mugimenduak ohartarazi duenez, basoa ez da arboladia bakarrik, ekosistema osoa baizik, uraren eta lurzorua ere egoerarekin estuki lotuta dagoena. Basoan egiten denak, beraz, ondorio kolektiboak ditu. Krisi klimatiko eta ekosozialaren erdian, gainera, erakunde horien hotsandiko planen artean, eta lurraldea jada kolpatzen ari diren muturreko fenomenoek lekuko izanik, ulergaitza egiten zaie hainbat baso kudeaketa pribatu eta publikotan egiten ari denari mugarik ez jartzea.

“Baso Biziak” goiburua hartuta hainbat udalerritan hedatu den mugimenduko partaidea den Uhandre Amurrioko Baso

Arin hedatzen ari da eukalipto Aiaraldean. Landaketak %450 hazi dira azken hamaiak urteetan, eta horri ustiaketa intentsibo berdina duen pinuen azalera gehitu behar zaio. Basogintza eredu horrek eragiten dituen kalteen ebidentzietan oinarrituta, herritarrek antolatu eta instituzioak interpelatu dituzte, mugak jar ditzaten.

Biziak plataformako kideekin egin du hitzordua GAUR8k, Aiaraldean. Beren burua aurkezteko, 2021. urtearen hasieran sortu zen ekimena dela azaldu dute; monolaborantzek eragindako arazoak aurreko hausnarketa eta horren inguruko kontzientzia sortzea dute helburu.

Adierazten duten kezka ez da herritar talde baten irakurketa edo iritzi hutsa, ebidentzia zientifikoek berresten dute zenbait landaketak eta ustiatzeko mo-

duk basoari eragiten dioten kaltea, eta kalte horrek dituen eragin eta ondorio ezberdinak. Eta, hala ere, diotenez, erakunde aldetik ezer gutxi egiten ari da arlo honetan. Hortik dator instituzioak presionatzeko ikusi duten beharra ere. Zenbait mobilizazioz gain, mozioak bultzatu dituzte udal ezberdinetan, emaitza ezberdinekin.

Amurrión, hiri antolamendurako plan orokor (HAPO) berriaren onarpenaren testuinguruan,

Uhandre Amurrioko Baso Biziak plataformak deitutako protesta bat, artxiboko irudian.
Monika DEL VALLE | FOKU



mendi publikoetan eukalipto landaketa berriak debekatzeko mozioa onartu du Udalak, EH Bildu eta Orain Amurrio taldeen botoekin. Uhandre plataformak landu zuen adierazpen batek auzokideen 500 sinadura eta herriko hainbat elkarte eta eragileren atxikimendua izan zuen.

Ondoko Aiara udalerrian, al-diz, EAJren gehiengo osoak atzera bota zuen oposizioko bi taldek (EH Bildu eta Aiara Batuz) aurkeztutako mozioa, eukalipto landaketen luzamendua eskatzeko.

KONTROLIK GABEKO HEDAPENA

Gaia sakondu aurretik, plataforma herritarraren sorrera eragin duen egoera zein den deskribatzeko eskatuta, argi diote amurriotarrek «eskualde honetan eukalipto kontrol gabe hedatzen ari dela», eta hain zuzen ere, hori ikusita sortu zela plataforma.

Arestian esan bezala, Aiaraldekoa ez da hedapen hori eza gutzen duen zonalde bakarra, antzeko egoera bizi baita Bizkaian eta Gipuzkoan. Amurrión, errealitate hori erakusten duten datuak bildu dituzte egoeraren irudi bat egin ahal izateko. Diotenez, eukalipto edozein tokitan landatzen ari dira, irizpiderik gabe, eta horri gehitu behar zaio hamarkada luzeetan zehar pinudiek izandako zalbalpen handia.

Mapa txiki baten aurrean, lurraldeak daukan baso azalera handia nabarmentzen dute. Aiaraldea osatzen duten udalerriak (Laudio, Amurrio, Okondo, Aiara eta Artziniega) gehi Arakaldo, Arrankudiaga, Orozko eta Urduña Bizkaiko herriak kontuan hartuta, Gorobel mendilerroaren, Gorbeia eta Ganeogortaren babesean baso azalera handi bat dago, 30.141 hektarea guztira. Beste era ba-

tera esanda, udalerri horien guztien azaleraren %61 basoa da.

«Horietatik, baso landaketak 18.510 hektarea dira, alde handiarekin, baso naturalak duen 11.231 hektareako azalera baino handiagoa, eta galeria basoen (erreken eta ibaien ondoko basoak) azalera murriztetik (414 hektarea) oro urruti».

Eskualdeko ipar-ekialdeko muturrean kontzentratzen diren baso landaketa horietan, intsinis pinuaren espezieak 13.990 hektarea betetzen ditu, eta eukalipto sail berriak 1.791 hektarea dira. «Horrek esan nahi du –erantsi dutenez– iparmendebaldean izan ezik, Aiaraldeko ekosistemen naturaltasuna nahiko txikia dela».

Zuhaitz azaleraren jabetzari dagokionez, esku pribatuetan daude basoen %46, baso landaketen %69 eta galeria basoen %95. Terminoak argitzearren, azaldu dute monolaborantzaz hitz egiten dutenean espezie bakar baten landaketaz ari direla, baina horien artean pinu eta eukaliptoen monolaborantzak direla kezka iturri nagusiak, ustiaketa eredu horrek lurzoruan, akuiferoetan, biodibertsitatean... dituen eraginengatik.

ARRASEKO MOZKETEN ERAGINAK

Espezie bi horiek kezka maila berdina eragiten duten galde-tuta, eukalipto askoz espezie kaltegarriagoa dela uste dute. Hasteko, pinudiak landatu eta 35-40 urtera mozten dira, eukaliptoak 12-15 urtera. Hortik dator, neurri handi batean, jabe askok errendimendu ekonomiko azkarraren alde egin-dako gero eta hautu zabalagoa. Eukaliptoaren ur kontsumoa, gainera «ikaragarria» da: 20 litro inguru egu-nero ale bakoitzeko.

Eskualdeko «sistema naturalaren osasuna ez da oso ona, basoen erdiak baino gehiago industrializatuta baitaude», eta horri erreparatzeko eskatzen du plataformak

«Ulertzen dugu hainbat sektoretan egurra beharrezkoa dela baliabide berriztagarri gisa, baina ez gatoz bat suntsipen ekologikoaren kontura izatearekin», nabarmendu dute

«Gero, eukalipto hostoak iraz-gaitzak dira, ez dute lurrean ura sartzen uzten, kalte egiten diete hainbat ornogaberi... eta oso biodibertsitate murrizta sortzen da inguruan», argitu dute.

Pinuaren kasuan, egun egiten den kudeaketa da arazo nagusia, «baratze laborantza modukoa baita, lineala. Moztean, arraseko

mozketa egiten da eta lurra babesik gabe geratzen da; horrek kalte handia egiten dio zoruari, eta hemen dauden maldekin higadura handia eragiten du».

Azaldu dutenez, eukalipto sailen hedapena pinuaren bilakae-rarekin lotuta dago, azken ha-markadetan pinudietan agertutako gaitzekin, bereziki. Horrek eta errendimendu ekono-miko azkarragoak pinuen ordez eukaliptoak jartzera bultzatu ditu jabe asko. Bilakaera erakusten duten datuak eskaini dituzte: 2010. urtean, eskualdean 400 hektarea hartzen zituen eukaliptoak; sei urte berandua-go nabarmen handitu zen horien azalera, 960 hektareara helduta. 2018an, 1.114 hektarea inbentariatu ziren; eta iaz, baso inbentarioko datuen arabera, azalera 1.791 hektareara iritsi zen.

«Horrek esan nahi du 11 urtean azalera %450 handitu dela, eta monolaborantza horiek hartzen duten azalera %30etik gorako maldetan dago, higadura fenomenoak agertzeko arriskua duten lurzoruetan. Horrek agerian uzten du ez dagoela kontrolik eta ez dagoela kontserbatzeko interesik dirua tartean dagoenean», dio Amurrioko taldeak.

PERRETXXIKOEN IKUSPUNTUTIK

Ez da bakarrik sorrarazten duten higaduragatik, lurzorua-ren degradaziogatik edo ur kontsumo handiagatik; suteen zabalpenerako zer arriskutsuak diren ere aipatu dute, eta perretxiko preziatuen ikuspuntutik begirata, ekosistemak hainbeste aldatzen dituen espezie horrekin, onddoak eta ornogabeak kalte-tuenetako batzuk direla gaineratu dute.

Eukaliptadietan, abereek eta basoko animaliek ez dute janari-rik aurkitzen eta, ondorioz, bes-



Bizkaian ugaritu egin dira eukalipto sailak. Monika DEL VALLE | FOKU



te leku batzuetara joaten dira, baita urbanizatutako eremueta-
ra ere. Ikuspegi mikologikotik
begiratuta ere adierazgarria da,
zeren «ez dute perretxiko inte-
resgarririk». Baina, horrez gain,
«sakon aldatzen dute ingurune-
aren egitura eta kromatismoa»,
eta paisaia ere oso epe laburre-
an eraldatzen dutela azaldu du-
te. «Mehatxu bat dira urlehortar
eta narrasti espezie gehienen-
tzat eta CO₂ko hustubideak di-
ren lurzoruentzat», erantsi dute.
Gogora ekarri dute, halaber,
espezie inbaditzailea dela, eta
horrela jasota egon bazen ere,
azkenean espezie inbaditzaileen
zerrendatik kendu zutela, beste-
lako interesak tarteko.

DUELA EHUN URTE INGURU

Badira ehun urte inguru dira lu-
rraldean pinu landaketak sar-
tzen hasi zirela. Beraz, hiruga-
rren errotazioa edo matarrasa
da honakoa, eta ez da datu hu-
tsala. «Espezie berdina behin
eta berriz leku berean landatuta,
zorua ahultzen da, ez dauka
hainbeste elikagai... Hori ortue-

tan ere ikusten da: beti leku be-
rean landatzen baduzu, urteen
poderioz lursail horiek pobre-
tzen doaz». Erakundeek zer egiten dute
horren aurrean? «Ezer gutxi»,
diote, eta ez dela ulergarria gai-
neratu dute. Hiri ingurune bate-
an esku-hartzeak araututa dau-
den bitartean, basoan
«bakoitzak nahi duena egin de-
zake», lurzoruak dituen ezauga-
rriei erreparatu gabe, eta landa
lurzoru guztiak ez dira berdi-
nak.

Basogintzako Lurralde Plan
Sektorialak hauskortasun han-
diko eremuak bereizten ditu,
hala nola leku oso aldapatsuak,

**Uhandreren ustez, lurzoruaren erabileren
antolamenduaz arduratu beharko lirateke
instituzioak, «bizitzarako funtsezkoa» baita eta
basoak direlako «hoberen babesten dutenak»**

**Alternatibak badaude, diotenez, eta baso
osasuntsu bat abeltzaintza eta basogintza
uztartzzen zituen antzinako eredutik gertuago
dago, «baina dibertsifikazioa ere behar da»**

Irudian, monolaborantzak
dituzten mendiak
Balmasedan, pasa den
urrian sutea izan zen
inguruan.
Jaizki FONTANEDA | FOKU

ibaientzako babesleak... eta hain
hauskortasun handia ez dute-
nak, «baina gero inork ez du ho-
rretan arreta jartzen».

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan,
1994-2030 Baso Plangintza ere
badago, 77.000 hektarea «men-
di babesle» izendatzea jasotzen
duena, «baina ez da bakar bat
ere deklaratu». Ingurumen
hauskortasun handiena duten
mendiak direla azaltzen dute,
adibidez dituzten maldengatik,
eta hori dela-eta, eginkizun ba-
besgarriago bat izan beharko lu-
ketela diote.

«Gure ustez, landa lursail ho-
riek ordenatuta egon beharko li-
rateke, eta horietako batzuk ba-
bestu, monolaborantzak guztiz
debekatuz». Hauskortasun han-
dia duten zoru horietan bertoko
espezie hostozabalak sartu be-
harko liratekeela uste dute, eta
naturarekiko hurbilen dagoen
kudeaketa bat egin. Ildo beretik,
ERREZ kooperatibak bultzatzen
duen eredia aipatu dute adibi-
de gisa, arraseko mozketak eza-
batzen baititu.

PRESIOAK, LAGUNTZAK, EROSKETAK

Erakundeen esku-hartzeei dago-
kienez, ezberdintasun handiak
daude, bestalde, herrialdeen ar-
tean. Gogoratu dute Bizkaian
eukaliptoen landaketen luza-
mendua ezarri dutela, Gipuzko-
an 25 urtetan jarri dute mozteko
muga, eukaliptoak daukan ete-
kin azkarraren pizgarria ezaba-
tuz, baina Araban, ez da inolako
neurririk hartu. Herrialde osoa
kontuan hartuta, monolaboran-
tzaren eredu hau Foru Aldun-
diari ezer gutxi axola zaiola uste
dute plataforman, herrialde
mailan oso portzentaje txikia
baita, Bizkaiko eragin klimatiko
berdinpean dagoen eremura
mugatuta.

Bitartean, Amurrioko Udalak
hainbat konpromiso hartu zuen
azken mozioan, «baina ez du

horien inguruko berri gehiago-
rik eman». Udalaren baso publi-
koetan ez dago eukaliptorik,
baina 900 hektarea inguru ku-
deatzen ditu, eta 600 inguru
monolaborantzakoak dira, ze-
haztu dutenaren arabera. Eta
eredua oso hedatuta dago ba-
tzar administratiboen artean,
kontzejuentzat diru iturri ga-
rrantzitsu bat baita.

Pinuaren gaitzen aurreko al-
ternatiba izateaz eta bere erren-
dimendu ekonomiko azkarraz
gain, eukaliptoak landatzeko in-
dustriaren presioa ere badagoe-
la komentatu dute amurrioa-
rrek. Eskualdean egurraren
transformazioarekin lotutako
hainbat jarduera dago. Pinuaren
egurra lehen eta bigarren trans-
formaziorako erabiltzen da; me-
heenak papergintzarako. Euka-
liptoaren egurra papergintzan
eta biomasan erabiltzen da.

Bien bitartean, jabeek hainbat
laguntza publiko dute, «pinuak
landatzeko, pistak egiteko, lehe-
nengo bakanketa eta inausketa
egiteko, sastrakak garbitzeko,
ongarritzeko...». «Publikoki
nahiko lagunduta dago eta ez
hori bakarrik, duela urte batzuk
egurraren prezioa baxua zenez
metro kubikoko laguntzak ere
ematen zizkieten egurraren sal-
menta bultzatzeko», gaineratu
dute plataformako kideek. Hale-
re, jaitsiera handia ezagutu os-
tean, pinuaren egurraren pre-
zioa igotzen ari omen da berriz.

Erakundeek har ditzaketen
bestelako neurriez galdetuta, es-
perientzia ezberdinak daudela
erantzun du plataformak. Hain-
bat udaletatik eredu ezberdinak
bultzatzen ari dira, zenbaitetan
basoak erosteari ere ekin diote,
eta horretarako une ona dela us-
te dute, «ziurgabetasun handia
dagoelako, lurrak merke daude
eta, gainera, aukera bat da admi-
nistrazioak erostea, zerren kan-
poko enpresa asko ari dira lur-

«NOLAKO BASO USTIAKETA, HALAKO URA», BASOAN HASTEN BAITA URAREN KUDEAKETA

Basoak, urak eta lurzoruak elkarrekiko duten erlazioaren harira, azalpen sakon bat eman zuen pasa den urrian Joserra Diez EHUko irakasle eta Biologia Zientzietan doktoreak Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Baso Biziak plataformak eskatuta. Interneten eskura daitekeen mezuan, erakundeen eskuetan dauden hainbat plangintza eta agiri aipatu zituen, jada identifikatuta dauden arrisku, kalte eta beharrezko esku-hartzeen ondoan.

Klima aldaketaren ondorioz, Gipuzkoako biztanleriaren %40k inpaktu larriak izango dituen ohartarazpena, adibidez, mahai gainean dago, baita azpiegitura berdeen eta natura prozesuetan inspiratutako irtenbideen beharra edo pinua eta eukalipto bezalako espezie hauskorrek suposatzen duten arriskua. Inpaktuak, halaber, ezagunak dira, bere mezutik ondorioztatzen denez.

Higaduraren arazoaz eta «etengabe» galduz doan lurzoruaz hitz egin zuen Diezek, eta nabarmendu zuen datu

orokorrek eurek erakusten dutela «euskarri biologikoak kolokan» daudela eta ez ditugula hobetzen.

Azken lehortek eragindako eskasiak uraren kudeaketa erdigunera eraman duen honetan, tokiko baliabideen zaintza eta horien gertuko kudeaketa publikoa defendatzen duten ahotsek argi diote uraren kudeaketa basotik hasten dela. Antzeko gogoeta bat mahaigaineratu zuen Diezek: «Nolako baso ustiaketa, halako ura». Gobernu ardurak dituzten ordezkarien aurrean, funtzio hidrologikoa zaintzearen garrantzia azpimarratu zuen, ibaietan eta erreketan dagoen ur urdinaz eta landaredian dagoen eta kudeatu daitekeen ur berdeaz hitz egin zuen, baita dagoen premiaz eta betebeharrak moralaz ere. Kardiologiarekin konparaketa eginez, errekek babestea «lurraldearen arteriak babestea dela» nabarmendu zuen. Monolaborantzen ereduari tematzeari buruz, zera esan zuen: «Ez da negozio ona ikuspegi kolektibo batetik».

Ziurgabetasuna nagusi bada ere, egurra behar duten enpresak espektatiba ugari zabaltzen ari direla dio Uhandrek. «Kanpoko enpresak ari dira lursailak erosten, badakigu zertarako»

Ustiapen intentsiboarekin jarraituz kanpoko espezieen landaketak ugaritzea aurreikusten dute, «kasurik onenean» sekoia edo «Cryptomeria japonica» bezalako espezieenak

Eukalipto landaketen hedapen handiak herritarren kezka eragin du udalerrri ezberdinetan, eta Baso Biziak izeneko mugimenduaren barruan plataformak sortu dira.
Monika DEL VALLE | FOKU

sailak erosten, batez ere Kantabria aldekoak, jabeen kooperatiba gisa ere bai, eta kantitate handietan erosten ari dira, badakigu zertarako».

Eredu jasangarrienak naturaren prozesuetatik gutxien aldentzen direnak direla azpimarratu dute, eta bide horretan antzinako ereduak aipatzen dituzte; adibidez, larregintza eta basogintza uztartzen dituen eredu zaharra.

Udan izandako bero kolpeen ondorioz sortutako suteak solasaldi honetan aipatzea saihetsezina da, Gorobelego mendilerroa hurbildu baitira. Pinu eta eukaliptoek suaren aurrean duten portaera ere kezkatzeko arrazoi dela uste dute, «pinua espezie erretxinatsua delako eta eukaliptoak olio moduko bat dauka, sua zabaltzen laguntzen duena. Gero, pinudietan dagoen landaretza erregaia da. Hostozabalen basoetan oihanpea handiagoa da eta sutea ez doa hain azkar ez goitik, ez behetik».

Aurrean daukagun paisaia pinuen eta eukaliptoen monolaborantza nagusitzen da, eta hori ez da aldatuko arriskuen kontzientzia hartzen ez bada. Uhandre plataforman argi dute baso jabeen «utzikeriak» eta egurren transformazioan lan egiten duen industriak bultzatutako espektatibek landaketa berriak ekarriko dituztela, eta azalera handiagoa hartuko dutela.

